# Azalpen txostena / Memoria explicativa

| Departamentua / Departamento | 06 | Sekzioa / Sección | 01 | Programa kodea / Código programa | 010 | Funtzioa / Función | 122 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|

Arduraduna:
Responsable:

Agintaldi honetan onartu da Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2015-2019 epealdiko Plan Estrategikoa, eta bertan 8 helburu estrategiko esleitu zaizkio Ogasun eta Finantza Departamentuari, departamentuaren Kudeaketa Planaren bidez garatu direnak.

Jarraian, helburu estrategiko horiek zerrendatzen dira, baita haien jarduketa ildoak eta zuzendaritzatik bultzatu diren ekintza nagusiak ere.

- Zerga iruzurra prebenitzea eta aurre egitea.
Hiru plan onartu eta garatu dira: Ikuskapen Plana (2016/03/18ko Ebazpena), Iruzurraren aurkako plan bateratua (2016/03/13), eta Egiaztapen Plana (2016/04/13).

2016an, informazioa trukatzeko esparru hitzarmena izenpetu da Eusko Jaurlaritzarekin, zerga alorreko datuak eskuratzea babesteko, eta hitzarmenak izenpetu dira, baita ere, hezkuntza, osasun, babes ofizialeko etxebizitza eta antzekoetan ekitatea hobetzearren. Orobat, nazioarteko hainbat akordio eta itun aplikatuz, datuen babeserako protokolo bat sinatu da AEATtik datu fiskalak jasotzeko.

-Baliabide publikoak modu efizientean kudeatzea, ongizatearen estatua definitzen duten zerbitzu publikoei eustea bermatzeko eta aurrekontuen egonkortasuna ziurtatzeko.

Emaitzetara bideratutako aurrekontuak prestatzeko programa aztertu, garatu eta ezarri da 2016an.

Orobat, parte hartu da finantzaketa instituzionaleko lantaldeetan, kontuan hartuta hortik ateratzen den proposamena ezingo dela gauzatu Kupoaren kalkuluak dakartzan diferentziak gainditu arte.

- Zerga betebeharren betetze-maila hobetzea, ongizatearen estatua bermatzen duten kontribuzioei gizarteak balio sozial handiagoa

En la presente legislatura se aprueba el Plan Estratégico 2015-2019 de la Diputación foral de Gipuzkoa y se asignan 8 objetivos estratégicos al departamento de Hacienda y Finanzas que han sido objeto de desarrollo a través del Plan de Gestión del departamento.

A continuación se relacionan estos objetivos estratégicos, sus líneas de actuación y las acciones principales impulsadas desde la dirección del departamento.

- Prevenir y perseguir el fraude fiscal.
Se han aprobado y desarrollado el Plan de Inspección (R de 18/03/2016), el Plan conjunto de lucha contra el fraude (30/03/2016) y el Plan de Comprobación (13/04/2016).

En 2016 se firma el Convenio marco de intercambio de información con el Gobierno Vasco, que ampara la obtención de datos de carácter fiscal, así como otros que mejoran la equidad en la prestación de servicios de educación, sanidad, VPO y otros, así como el protocolo de protección de datos para la recepción de los datos fiscales recibidos de la AEAT en aplicación de Acuerdos y Tratados Internacionales.

- Gestionar de forma eficiente los recursos públicos garantizando el sostenimiento de los servicios públicos que definen el estado del bienestar y asegurando la estabilidad presupuestaria

En 2016 se ha realizado el análisis, desarrollo e implantación del programa de elaboración de los presupuestos orientados a resultados.

Asimismo se ha participado en los grupos de trabajo de financiación institucional sin perjuicio de que la propuesta correspondiente quedará en suspenso hasta resolver las diferencias en el cálculo del Cupo.

- Mejorar el cumplimiento de las obligaciones tributarias como resultado de una mayor comprensión del valor social de las

Azalpen txostena / Memoria explicativa

| Departamentua / Departamento | 06 | Sekzioa / Sección | 01 | Programa kodea / Código programa | 010 | Funtzioa / Función | 122 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|

Arduraduna:
Responsable:

emateagatik eta iruzurrezko jokabideen aurrean tolerantzia txikiagoa erakusteagatik.

Gipuzkoako ondasun higiezinen berrikuspen katastrala egin da: 88 ponentzia onartu dira, eta 600.000 unitate katastral berrikusi eta jakinarazi dira.

Aurrera jarraitu da zerga eta finantza heziketako programarekin 30 ikastetxetako DBHko 4. mailan, aintzat hartuta hezkuntzaren formula oso eragin handikoa dela zerga obligazioak borondatez betetzearen aldeko kulturaz jabetzeko. Orobat, harremanak izan dira unibertsitate munduan hainbat ekimen garatzeko, eta zehazki, 2016. urtean “Jarduera ekonomikoa ongizatearen berme” izeneko ikastaroa antolatu da EHUko udako ikastaroen barruan.

- Zerga-sistema benetako tresna bihurtzea desberdintasun ekonomikoa murrizteko, eta arau fiskal eta finantzarioak egiteko gaitasuna garapen ekonomikoaren, enpleguaren eta ongizatearen zerbitzura jartzea.

2016. urtean nabarmentzeko modukoa da langileek enpresan parte hartzea bultzatzeko onartutako foru araua, arlo horretan hainbat neurri ezarri dituena gizonen eta emakumeen desberdintasuna murrizteko.

- Herritarrei eskainitako arretaren kalitate maila hobetzen jarraitzea.

2016an hobekuntza berriak sartu dira errenta kanpainako zerbitzuetan.

- Departamentua administrazio modernoaren erreferente bihurtzea, antolaketaren eta berrikuntza teknologikoaren ikuspegitik, herritarren arretara eta iruzurraren aurkako borrokara zuzendua.

Helburu horrek barruan hartzen ditu, bereziki, Idazkaritza Teknikoari esleitutako ekitzak.

contribuciones como garantes del estado del bienestar y de la menor tolerancia social respecto a las conductas fraudulentas.

Se ha realizado la campaña de revisión catastral de bienes inmuebles de Gipuzkoa: 88 ponencias aprobadas y 600.000 unidades catastrales revisadas y notificadas

Se ha continuado con el programa de educación tributaria y financiera en 30 centros de 4ª de la ESO como exponente de una fórmula, la educación, de gran impacto para introducir la cultura del cumplimiento voluntario de las obligaciones fiscales. Asimismo se han realizado contactos para desarrollar iniciativas en el ámbito universitario y en particular, en 2016, la organización del curso de verano de la UPV “Actividad económica como garantía del estado de bienestar“.

- Convertir el sistema impositivo en una verdadera herramienta para reducir la desigualdad económica poniendo la capacidad normativa fiscal y financiera al servicio del desarrollo económico, el empleo y el bienestar.

Destaca en 2016 la Norma Foral de participación de los trabajadores en la empresa que introduce medidas en este ámbito para reducir la desigualdad entre hombres y mujeres.

- Seguir progresando en los niveles de calidad de la atención a la ciudadanía.

En 2016 se han introducido nuevas mejoras en los servicios de campaña de Renta.

- Convertir al departamento en un referente de administración moderna en términos de organización e innovación tecnológica dirigida a la atención a la ciudadanía y a la lucha contra el fraude.

Se trata del objetivo que recoge de forma más directa las acciones encomendadas a la Secretaría Técnica.

Azalpen txostena / Memoria explicativa

| Departamentua / Departamento | 06 | Sekzioa / Sección | 01 | Programa kodea / Código programa | 010 | Funtzioa / Función | 122 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|

Arduraduna:
Responsable:

Hona hemen nabarmendu beharrekoak:

Departamentuaren egitura dekretuaren proiektua prestatu. Bi berrikuntza nagusi daude proiektuan: herritarrei laguntza eta arreta emateko zerbitzuak Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiari esleitzea, eta prozedura berezietarako zerbitzu bat sortzea iruzur prozedura berrien aurka egiteko.

Urtean 2 bilera egin departamentuko langileei adierazteko zer helburu proposatu diren eta zer emaitza lortu diren.

Departamentuaren intranet berria argitaratu, behin edukiak eguneratuta.

Batzar Nagusiei proposatu langileen zerrenda 45 plaza berriekin handitu dadila.

2017ko enplegu eskaintzarako ezagutzak eta trebetasunak definitu.

Iritsi berriei harrera egin zuzendaritzatik.

Departamentuaren urteko prestakuntza planak berekin ekarri du Aldundiaren urteko Prestakuntza Planean egindako 4.000 orduei beste 4.000 ordu gehitzea.

Batzar Nagusiei proposatu 2017ko aurrekontuan beharrezko kredituak onartu daitezela proiektu informatiko handiak garatzeko: "Zerga", “Kontua”, “Big Data”, emaitzetara bideratutako aurrekontua

2016ko informatika plana garatu. 2017ko informatika plana onartu.

Neurriak hartu 39/2015 Legea departamentuko prozeduretan aplikatzeko.

Informazio kanpainak gauzatu Ogasunarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzera behartuta dauden zergapekoentzat (33.000

Las acciones a destacar se relacionan a continuación:

Elaboración del proyecto de decreto de estructura departamental. Las principales novedades son la propuesta de asignación de los servicios de apoyo y atención ciudadana a la dirección general de Hacienda y de creación de un servicio de procedimientos especiales que impulse la lucha contra nuevos procedimientos de fraude.

Celebración de 2 reuniones anuales de presentación al personal del departamento de los objetivos propuestos y los resultados obtenidos.

Publicación de la nueva intranet departamental con contenidos actualizados.

Propuesta a Juntas Generales de incremento de recursos humanos con 45 plazas nuevas.

Definición de conocimientos y destreza para la OPE 2017.

Acogida de las nuevas incorporaciones desde la dirección.

El Plan de Formación anual del departamento para 2016 ha supuesto 4.000 horas a adicionar a las 4.000 horas realizadas en el Plan de Formación anual de Diputación.

Propuesta a Juntas Generales de aprobación en el presupuesto 2017 de los créditos específicos necesarios para el desarrollo de los grandes proyectos informáticos: Zerga, Kontua, Big Data, presupuesto orientado a resultados..

Desarrollo del plan informático 2016. Aprobación del plan informático 2017.

Medidas para la aplicación de la ley 39/2015 a los procedimientos del departamento.

Implementación de las campañas de información dirigidas a los colecitvos de obligados tributarios (33.000 personas) que deben desarrollar sus

| Azalpen txostena / Memoria explicativa | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Departamentua<br>Departamento | **06** | Sekzioa<br>Sección | **01** | Programa kodea<br>Código programa | **010** | Funtzioa<br>Función | **122** |
| Arduraduna:<br>Responsable: | | | | | | | |

pertsona) (1/2016 Foru Agindua).

relaciones con Hacienda por medios electrónicos (OF 1/2016).

## Programaren helburu eta ekintzen fitxa / Ficha de los objetivos y acciones del programa

| Departamentua / Departamento | Sekzioa / Sección | Programa kodea / Código programa | Funtzioa / Función |
|---|---|---|---|
| **06** | **01** | **010** | **122** |

**Helburuak / Objetivos**

01 Proposatzea, zuzentzea eta berrikustea Foru Aldundiaren 2015-2019 bitarteko helburu estrategikoak lortzeko zerga eta finantza politikak./
Proponer, dirigir y revisar las políticas en materia fiscal y financiera para la consecución de los objetivos estratégicos de la Diputación Foral en el periodo 2015-2019.

| **Ekintzak / Acciones** | Indikatzaileak Indicadores | Aurreikusia Previsión | Egina Realización | Burutua Ejecución |
|---|---|---|---|---|
| 01.1 2015-2019 Plan Estrategikoa. Plana Departamentuaren esparrura ekartzea./ Desplegar el Plan Estratégico 2015-2019 en el ámbito del Departamento. | Departam plana/ Plan Departam. | 1 | 1 | 100% |
| 01.2 Ezartzea zerga eta finantza sistema garatzeko jarraibideak, zerga iruzurra prebenitu eta aurre egiteko jarduketak eta baliabide publikoen kudeaketa efizientea./ Establecer las directrices para el desarrollo del sistema impositivo y financiero, las actuaciones de prevención y persecución de lucha contra el fraude y la gestión eficiente de los recursos públicos. | Zuzendaritzaren bilerak/ Reuniones de dirección | 40 | 40 | 100% |
| 01.3 Finkatzea zerga sistema garapen ekonomikoaren, enpleguaren eta ongizatearen aldeko tresna bihurtzeko jarraibideak. Zergen Foru Arau Orokorraren aldaketa eta enpresen aldeko neurriei buruzko beste foru arau bat./ Fijar las directrices para convertir el sistema impositivo en una herramienta al servicio del desarrollo económico, el empleo y el bienestar. Modificación de la NFGT y otra nueva sobre medidas sobre las empresas. | Araudi proiektuak/ Proyectos normativos | 2 | 2 | 100% |
| 01.4 Araba eta Bizkaiko Foru Aldundiekin eta Eusko Jaurlaritzarekin jarduketak koordinatzea./ Coordinación de actuaciones con las Diputaciones Forales de Alava y Bizkaia y con el Gobierno Vasco. | OCTE bilerak/ Reuniones OCTE | 12 | 12 | 100% |
| | Iruzurraren aurkako Plan Bateratua/ Plan conjunto de Lucha contra el Fraude | 1 | 1 | 100% |

## Programaren helburu eta ekintzen fitxa / Ficha de los objetivos y acciones del programa

| Departamentua / Departamento | Sekzioa / Sección | Programa kodea / Código programa | Funtzioa / Función |
|---|---|---|---|
| **06** | **01** | **010** | **122** |

**Helburuak / Objetivos**

01 Proposatzea, zuzentzea eta berrikustea Foru Aldundiaren 2015-2019 bitarteko helburu estrategikoak lortzeko zerga eta finantza politikak./
Proponer, dirigir y revisar las políticas en materia fiscal y financiera para la consecución de los objetivos estratégicos de la Diputación Foral en el periodo 2015-2019.

| Ekintzak / Acciones | Indikatzaileak / Indicadores | Aurreikusia / Previsión | Egina / Realización | Burutua / Ejecución |
|---|---|---|---|---|
| 01.5 Zerga iruzurra prebenitu eta aurre egiteko jarraibideak finkatzea./ Fijar las directrices para la prevención y persecución del fraude fiscal. | Egiztapen Plana/ Plan de Comprobación | 1 | 1 | 100% |
| 01.6 Baliabide publikoen kudeaketa efizienterako behar diren bitartekoak jartzea./ Impulsar los medios necesarios para la gestión eficiente de los recursos públicos. | Aurrekontuen aplikazioa/ Aplicación de presupuestos | 1 | 1 | 100% |
| 01.7 Batzar Nagusiei Departamentuaren helburu, jarduketa eta kudeaketa arloen berri ematea./ Información a Juntas Generales de los objetivos, actuaciones y áreas de gestión del Departamento. | Agerraldiak. Idatzizko informazioa. Erantzuteko epea/ Comparecencias. Información escrita. Plazo de respuesta | 10 | 10 | 100% |
| | Idatzizko informazioa/ Información escrita. | 20 | 22 | 110% |
| | Erantzuteko epea./ Información escrita. | 100% | 86.3% | 86.3% |

## Programaren helburu eta ekintzen fitxa / Ficha de los objetivos y acciones del programa

| Departamentua / Departamento | Sekzioa / Sección | Programa kodea / Código programa | Funtzioa / Función |
|---|---|---|---|
| **06** | **01** | **010** | **122** |

**Helburuak / Objetivos**

02 Sendotzea eta aurrera egitea zerbitzu publikoaren kontzeptuaa barneratzeko bidean./
Consolidar y avanzar en la interiorización del concepto de servicio público

| **Ekintzak / Acciones** | Indikatzaileak Indicadores | Aurreikusia Previsión | Egina Realización | Burutua Ejecución |
|---|---|---|---|---|
| 02.1 Genero ikuspuntua Departamentuaren araugintzan aplikatzea./ Aplicar la perspectiva de género en la elaboración de normas por el Departamento. | Txostenak/ Informes | 6 | 6 | 100% |
| 02.2 Hizkuntza eskubideak bermatzeko urte anitzeko plan bat onartzea eta ezartzea./ Aprobar e implementar un plan plurianual para asegurar los derechos lingüísticos. | Berariazko plana/ Plan específico | 1 | 1 | 100% |
| 02.3 Gipuzkoako ekonomia ordezkatzen duten elkarteekin harremanak areagotzea./ Impulsar los contactos con las asociaciones representativas de la economía guipuzcoana. | Kontsultak/ Consultas | 2 | 7 | 350% |
| | Bilerak/ Reuniones | 4 | 6 | 150% |
| 02.4 Departamentuko zerbitzu kartetan jasotako estandarretara iristea./ Alcanzar los estándares exigidos en las cartas de servicios del Departamento. | Zerbitzu kartetako helburuen betetzea/ Cumplimiento objetivos de las cartas de servicios. | 100% | 100% | 100% |
| 02.5 Departamentuko prestakuntza plana, ezagutzak garatu eta pertsonen arretarako trebetasunak eguneratzeko asmoa izango duena./ Plan de formación departamental dirigido tanto a la actualización de conocimientos como al desarrollo de habilidades para la atención a las personas. | Plana/ Plan | 1 | 1 | 100% |

## Programaren helburu eta ekintzen fitxa / Ficha de los objetivos y acciones del programa

| Departamentua / Departamento | Sekzioa / Sección | Programa kodea / Código programa | Funtzioa / Función |
|---|---|---|---|
| **06** | **01** | **010** | **122** |

**Helburuak / Objetivos**

03 Beharrezko laguntza teknikoa ematea Departamentuko unitateek era egokian lan egin dezaten./
Prestar apoyo técnico necesario para el correcto desenvolvimiento de las distintas unidades del Departamento.

| **Ekintzak / Acciones** | Indikatzaileak / Indicadores | Aurreikusia / Previsión | Egina / Realización | Burutua / Ejecución |
|---|---|---|---|---|
| 03.1 Departamentuko langileria politika kudeatzea./ Gestión de la política de personal del Departamento. | Plantilla/ Plantilla | 530 | 524 | 98,87% |
| 03.2 Lokalak eta instalazioak konpontzea, zaintzea eta mantentzea./ Reparación, conservación y mantenimiento de locales e instalaciones. | Lokalak/ Locales | 14 | 14 | 100% |
| 03.3 Departamentuko aurrekontua prestatzea eta kudeatzea./ Elaboración y gestión del presupuesto del Departamento. | Proiektua/ Proyecto | 1 | 1 | 100% |
| | Likidazioa/ Liquidación | 1 | 1 | 100% |
| 03.4 Tramitatzea eta kontrolatzea kontratazio, barkamen, berrikuspen, erantzukizun eta bestelako espedienteak./ Tramitación y control de expedientes de contratación, condonación, revisión, responsabilidad y otros. | Kontratu kopurua/ Nº contratos | 30 | 39 | 130% |
| | Zehapen barkameneko aplikazioa berria/ Nueva aplicación condonaciones | 1 | 0 | 0% |
| | Barkamen esp. epe barruan ebatzita (%)/ % de exp. condonación resueltos en plazo | 98% | 97,5% | 99,50% |
| | Beste batzuk/ Otros | 50 | 47 | 94% |

## Programaren helburu eta ekintzen fitxa / Ficha de los objetivos y acciones del programa

| Departamentua / Departamento | Sekzioa / Sección | Programa kodea / Código programa | Funtzioa / Función |
|---|---|---|---|
| **06** | **01** | **010** | **122** |

**Helburuak / Objetivos**

03 Beharrezko laguntza teknikoa ematea Departamentuko unitateek era egokian lan egin dezaten./
Prestar apoyo técnico necesario para el correcto desenvolvimiento de las distintas unidades del Departamento.

| **Ekintzak / Acciones** | Indikatzaileak Indicadores | Aurreikusia Previsión | Egina Realización | Burutua Ejecución |
|---|---|---|---|---|
| 03.5 Artxibo zentrala eguneratuta edukitzea./ Mantenimiento del archivo central al día. | Irteeren kop. (maileguak)/ Nº salidas (préstamos) | 10.000 | 7.469 | 74,69% |
| | Sarreren kop. (itzulketak eta dok. berriak)/ Nº entradas (devoluciones y nuevos doc.) | 30.000 | 44.179 | 147,26% |
| 03.6 Departamentuko Erregistro Orokorra mantentzea./ Mantenimiento del Registro General del Departamento. | Sarreren kop./ Nºentradas | 140.000 | 179.488 | 128,21% |
| | Irteeren kop./ Nº salidas | 10.000 | 10.435 | 104,35% |
| 03.7 Kontuan hartzea eta arantzutea herritarren kexak, erreklamazioak eta iradokizunak. Salaketak tramitazea./ Atender y contestar las quejas, reclamaciones y sugerencias de la ciudadanía. Dar trámite a las denuncias presentadas. | Kexa eta iradokizunak/ Quejas y sugerencias | 220 | 237 | 107,73% |
| | Kontsultak/ Consultas | 1.300 | 1.259 | 96,85% |
| | Salaketak/ Denuncias | 270 | 264 | 97,78% |
| | Epea-Egunak/ Plazo-Días | 30 | 30 | 100% |

## Programaren helburu eta ekintzen fitxa / Ficha de los objetivos y acciones del programa

| Departamentua / Departamento | Sekzioa / Sección | Programa kodea / Código programa | Funtzioa / Función |
|---|---|---|---|
| **06** | **01** | **010** | **122** |

**Helburuak / Objetivos**

03 Beharrezko laguntza teknikoa ematea Departamentuko unitateek era egokian lan egin dezaten./
Prestar apoyo técnico necesario para el correcto desenvolvimiento de las distintas unidades del Departamento.

| **Ekintzak / Acciones** | Indikatzaileak Indicadores | Aurreikusia Previsión | Egina Realización | Burutua Ejecución |
|---|---|---|---|---|
| 03.8 Sustatzea herri entitate eta administrazioentzako zerga informazioaren zuzeneko hornikuntza./ Potenciar el suministro directo de información tributaria a entidades y administraciones públicas. | Zuzenean herri administrazioei emandako txosten , ziurtagiri eta datuen %/ % de informes, certificados y datos facilitados directamente a Agencias Públicas | 90% | 87,9% | 97,3% |
| | Informazio hornidurako ereduak abiatzea edo berritzea/ Renovación o puesta en marcha de nuevos modelos de suministro de información | 8 | 10 | 125% |
| 03.9 Entitateetatik eta herri administrazioetatik zerga informazio interesgarria zuzenean jasotzeko aukera sustatzea./ Potenciar la recepción directa de información de interés tributario de entidades y administraciones públicas. | Jasotako datu mota berriak/ Nuevos tipos de datos recibidos | 8 | 3 | 37,5% |
| 03.10 Errolden mantenimendua (legezko ordezkariak, ordezkari profesionalak eta borondatezko ordezkariak)./ Mantenimiento de los censos de representantes legales, de representantes profesionales y representantes tributarios. | Erroldako urteko mugimenduak/ Movimientos anuales en el censo | 2.500 | 2500 | 100% |

| Programaren helburu eta ekintzen fitxa / Ficha de los objetivos y acciones del programa | | | |
|---|---|---|---|
| Departamentua / Departamento **06** | Sekzioa / Sección **01** | Programa kodea / Código programa **010** | Funtzioa / Función **122** |

**Helburuak / Objetivos**

03 Beharrezko laguntza teknikoa ematea Departamentuko unitateek era egokian lan egin dezaten./
Prestar apoyo técnico necesario para el correcto desenvolvimiento de las distintas unidades del Departamento.

| **Ekintzak / Acciones** | Indikatzaileak Indicadores | Aurreikusia Previsión | Egina Realización | Burutua Ejecución |
|---|---|---|---|---|
| 03.10 Errolden mantenimendua (legezko ordezkariak, ordezkari profesionalak eta borondatezko ordezkariak)./ Mantenimiento de los censos de representantes legales, de representantes profesionales y representantes tributarios. | Legezko ordezkariak/ Repres. legales. | 2.500 | 6.216 | 248,64% |
| | Zerga ordezkaritzak/ Representaciones tributarias | 17.000 | 20.936 | 123,15% |
| | Errenta eta aberastasun aitorpenak aurkezteko ordezkaritzak (001RP)/ Representaciones para presentación declaraciones de Renta y Riqueza (001RP) | 4.500 | 6.366 | 141,47% |
| 03.11 Derrigorrezko jakinarazpen elektronikoaren ezarpena zergadunen kolektibo jakin batzuei./ Implementación de la notificación electrónica obligatoria a determinados colectivos de contribuyentes. | Kanpaina/ Campaña | 1 | 4 | 400% |
| 03.12 Erabilpen bakarreko pina duen pasahitz operatiboaren ezarpena./ Implementación de la Clave Operativa con pin de un solo uso. | Garapen informatikoetako kanpaina/ Campaña desarrollos informáticos | 1 | 0 | 0% |

| Programaren helburu eta ekintzen fitxa / Ficha de los objetivos y acciones del programa | | | |
|---|---|---|---|
| Departamentua / Departamento **06** | Sekzioa / Sección **01** | Programa kodea / Código programa **010** | Funtzioa / Función **122** |

**Helburuak / Objetivos**

04 Departamentuko organo eta unitateen jarduketak koordinatzea eta haiei aholkua ematea./
Coordinar y asesorar las actuaciones de los órganos y unidades del Departamento.

| **Ekintzak / Acciones** | Indikatzaileak / Indicadores | Aurreikusia / Previsión | Egina / Realización | Burutua / Ejecución |
|---|---|---|---|---|
| 04.1 Departamentuaren arauzko xedapenen azterketa eta tramitazioa./ Examen y tramitación de las disposiciones del Departamento. | Foru aginduak/ Ordenes Forales | 708 | 604 | 85,31% |
| | Ebazpenak/ Resoluciones | 892 | 757 | 84,87% |
| | Kontseiluaren erabak./ Acuerdos Consejo | 110 | 131 | 119,09% |
| 04.2 Kontsolidatzea informazio sarbideetarako kontrol eta segurtasun sistemak./ Consolidación de los sistemas de control y seguridad en los accesos a la información. | Sarbide profilen berrikuspen orokorra/ Revisión general de perfiles de accesos | 1 | 50% | 50% |
| 04.3 Genero ikuspuntutik tratatzea kontratazio espedienteak, diru laguntzen emakidak, komunikazioak eta urteko planean jasotako beste jarduketa batzuk./ Contemplar desde la perspectiva de género los expedientes de contratación, concesión de subvenciones, comunicaciones y otras actuaciones incluidas en el plan anual. | Urteko planaren exekuzioa/ Ejecución plan anual | 1 | 1 | 100% |
| 04.4 Departamentuko euskararen erabilerako urteko planaren ezarpena: euskarazko aplikazio orokorren erabiltzaileen kopurua./ Implementar el plan anual de uso del euskera en el Departamento: número de usuarios de aplicaciones generales en euskera. | Urteko planaren exekuzioa/ Ejecución plan anual | 1 | 1 | 100% |

| Azalpen txostena / Memoria explicativa | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Departamentua Departamento | 06 | Sekzioa Sección | 01 | Programa kodea Código programa | 020 | Funtzioa Función | 122 |
| Arduraduna: Responsable: | | | | | | | |

• HERRITARREN ARRETA ETA HEZIKETA ZIBIKO-TRIBUTARIOAREN SUSTAPENA.

2016. urtean zehar zabaldu eta hobetu dira herritarrei zuzendutako informazio eta laguntza zerbitzuak, zerga obligazioak borondatez betetzea errazteko. Hobekuntzen artean hauek nabarmendu daitezke:

• Informazio pertsonalizatuko zerbitzuak indartzea: 228.000 kontsulta izan dira bulegoetan, 7.000 telefono dei pertsonalizatu jaso dira, eta 32.000 kontsulta egin dira web-call zerbitzuaren bitartez.

• Herritarrekiko harremanetan kanal telematikoa bultzatzea: 2.800.000tik gora kudeaketa egin dira Gipuzkoatarian, 5 eredu tributario eta bi formulario telematizatu dira, eta, departamentuak jarraitu du sare sozialetan presentzia izaten twitterreko @gipuzkoaogasuna kontu ofizialaren bidez.

• Prozedurak eta informazioa sistematizatu dira beren eskubide eta betebeharrak zeintzuk diren zergadunek errazago uler dezaten: horrela, egunean jarri dira autonomoen eta enpresa txikien gida fiskala eta lehen sektorearena, zerga egutegia argitaratu da, eta errenta zergaren zergadunei informazio orri bat banatu zaie ekarpen fiskalekin lortzen diren baliabide publikoak zertan gastatzen diren azaltzeko.

• Jendaurreko lanpostu guztietan arreta elebiduna indartu da, euskara zerbitzu hizkuntza gisa erabiltzea bultzatuz.

• Jendaurreko arretaren kalitatea etengabe hobetzeko aurrera eraman diren ekintzen artean, nabarmentzekoa da 4 zerbitzu karta argitaratu direla, eta 3 inkesta egin direla herritarren asebetetze maila neurtzeko (haietako bat departamentuko zerbitzu presentzialei buruz, beste bat errenta kanpainari buruz, eta, azkena,

• ATENCIÓN A LA CIUDADANÍA E IMPULSO DE LA EDUCACIÓN CIVICO-TRIBUTARIA.

A lo largo del año 2016 se ha ampliado y mejorado la oferta de servicios de información y asistencia a la ciudadanía para favorecer el cumplimiento voluntario de las obligaciones tributarias; entre las mejoras introducidas cabe destacar las siguientes:

• Potenciación de los servicios de información personalizada, con 228.000 consultas en oficinas, más de 7.000 llamadas telefónicas personalizadas y 32.000 consultas web-call.

• Potenciación del canal telemático como forma de relación con la ciudadanía; se han realizado más de 2.800.000 gestiones en el portal Gipuzkoataria, se han telematizado 5 modelos tributarios y dos formularios y se ha mantenido la presencia del departamento en las redes sociales a través de la cuenta twitter oficial @gipuzkoaogasuna.

• Se han sistematizado los procedimientos e información para facilitar la comprensión de los derechos y obligaciones por parte de las personas contribuyentes: así, se han actualizado la guía fiscal para autónomos y pequeñas empresas, la guía fiscal para el primer sector y se ha publicado el calendario fiscal; se ha repartido una hoja informativa a los contribuyentes del IRPF sobre la distribución de los recursos públicos obtenidos con las aportaciones fiscales.

• Se ha reforzado la atención bilingüe en todos los puestos de atención al público, impulsando el uso del euskera como lengua de servicio.

• Entre las acciones llevadas a cabo para una mejora continua de la calidad en la atención al público destacan la publicación de 4 cartas de servicios y la realización de 3 encuestas de satisfacción a la ciudadanía (una sobre los servicios presenciales departamentales, una sobre la campaña de renta y una sobre los servicios

## Azalpen txostena / Memoria explicativa

| Departamentua / Departamento | Sekzioa / Sección | Programa kodea / Código programa | Funtzioa / Función |
|---|---|---|---|
| **06** | **01** | **020** | **122** |

Arduraduna:
Responsable:

zerbitzu telefonikoei buruz).

• Heziketa zibiko-tributarioa bultzatzeko ekintzen artean, bereziki aipatzekoa da 2016/2017 ikasturtean abian jarri dela Gipuzkoako 30 ikastetxetan ekonomia eta fiskalitateari buruzko unitate didaktikoa.

• DEPARTAMENTUKO INFORMATIKA.

2016. urtean zehar jarraitu da ZERGA proiektuaren I. fasea garatzen, zerga kudeaketako plataforma berria ezartzeko. Horretarako, ekintza hauek gauzatu dira, besteak beste: aitorpenak prestatu eta aurkezteko funtzionalitateak diseinatu eta garatu dira, preprodukzioko ingurunean lehen eredu tributarioak kontrastatu eta balidatzeko moduan egon daitezen; hobekuntzak sartu dira integratzeko dauden espediente elektronikoko zerbitzuetan, eta, laguntza programarik ez zuten zerga ereduen kasuan, programa horien funtzioak definitu dira zerga horiek ere plataforma berrian sartzeko (jarduera ekonomikoak, oinordetzak, dohaintzak, eta eskualdaketak).

Zergak kudeatzeko aplikazioak eta udal, aurrekontu eta kontabilitate arlokoak mantendu eta egokitzeko proiektuez gainera, honako ekintzak ere gauzatu dira:

• Aholkularitza zerbitzu bat kontratatu da zerga-bilketa sistema modu integralean aztertu dezan, zerga-bilketa prozesuak eusten dituzten informazio sistemen bilakaerari buruzko estrategia definitzeko.

• Beharrezko egokitzapenak egin dira 1/2016 Foru Agindua, foru administrazioarekiko harremanak bide elektronikoz izateko obligazioa arautzen duena, gauzatu ahal izan dadin.

telefónicos).

• Entre las acciones realizadas para el fomento de la educación cívico-tributaria destaca la implementación de la unidad didáctica sobre economía y fiscalidad en 30 centros escolares guipuzcoanos, a partir del curso escolar 2016/2017.

• INFORMATICA DEPARTAMENTAL.

Durante el año 2016 se ha continuado desarrollando la Fase I del proyecto ZERGA, que tiene como finalidad la implantación de una nueva plataforma de gestión tributaria. Entre otras acciones, se ha realizado el diseño técnico y desarrollo de las funcionalidades para la elaboración y presentación de declaraciones, a fin de disponer en el entorno de preproducción de los primeros modelos tributarios para su contraste y validación; asimismo, se han mejorado los servicios a integrar de expediente electrónico, y se ha llevado a cabo la definición funcional de los programas de ayuda correspondientes a aquellos modelos tributarios que carecían del mismo y que van a ser incorporados a la nueva plataforma (Impuesto de Actividades Económicas, Sucesiones, Donaciones, y Transmisiones)

Además de los proyectos de mantenimiento y adaptación de las aplicaciones que gestionan los diversos impuestos, así como las relacionadas con la gestión municipal, presupuestaria y contable, se han desarrollado otra serie de acciones en las siguientes materias:

• Se ha puesto en marcha la consultoría de un sistema integral de recaudación, con el objeto de definir la estrategia de evolución de los sistemas de información que soportan los procesos de recaudación tributaria.

• Se han realizado las adecuaciones necesarias para hacer efectiva la Orden Foral 1/2016 por la que se regula para determinados colectivos la obligatoriedad de realizar trámites y recibir notificaciones por medio electrónicos.

Azalpen txostena / Memoria explicativa

| Departamentua / Departamento | Sekzioa / Sección | Programa kodea / Código programa | Funtzioa / Función |
|---|---|---|---|
| 06 | 01 | 020 | 122 |

Arduraduna:
Responsable:

• Aurrera eraman dira katastroa 2016an berrikusteko proiektutik ondorioztatutako ekintzak.

• Aldaketak sartu dira aurrekontuen aplikazioan emaitzetara bideratutako aurrekontuaren beharkizunetara egokitzeko.

• Jakinarazpen elektronikoa integratu da Foru Auzitegiak kudeaketarako erabiltzen duen aplikazioan, haren funtzionalitateak hobetzeaz gainera.

• Zerga eredu berriak ezarri dira.

Orobat, laguntza lanak egin dira aitorpenak elektronikoki egin eta aurkezteko prozesuetan, ordaintzeko modalitateen kudeaketan, administrazioen arteko aldizkako informazio trukeetan, eta informazioa departamentuko datu baseetan txertatzeko prozesuetan. Alde horretatik, 2016. urtean informazioa grabatu, digitalizatu eta identifikatu da, haren kalitatea kontrolatu da, baita zerbitzu elektronikoen tramitazioan lagundu ere, eta horrek 502.121 dokumentu tratatzea ekarri du berekin.

Kalitate arloan, laguntza eman da departamentuko zerbitzu kartak eta asebetetze inkestak prestatzeko eta haien segimendua egiteko. Orobat, elkarlanean jardun da departamentuko hainbat proiektu horizontal gauzatzeko (ZERGA, jakinarazpen elektronikoa, ordainketa modalitateak, bitarteko elektronikoen erabilera zerga kudeaketan, etab ) eta administrazio elektronikoarekin zer ikusia duten beste proiektu korporatibo batzuk ere aurrera eramateko (espediente elektronikoa, kasu).

• POLITIKA HORIZONTALAK.

Azkenik, 2016. urtean aurrera eraman diren hainbat ekimenek politika horizontalak ezartzea

• Se han llevado a cabo las acciones derivadas del proyecto de revisión catastral del territorio, acometido durante el 2016.

• Se han introducido modificaciones en la aplicación de presupuestos con la finalidad de adaptarla a los requerimientos de un presupuesto orientado a resultados.

• Se ha incorporado la notificación electrónica a la aplicación de gestión del TEAF, además de introducir otras mejoras en sus funcionalidades.

• Se han implantado nuevos modelos tributarios.

Asimismo, se han realizado labores de asistencia y apoyo en la elaboración y presentación de declaraciones por medios electrónicos, en la gestión de sus modalidades de pago, en los intercambios periódicos de información entre administraciones, y en los procesos de incorporación de información a las bases de datos departamentales. Al respecto, durante este año se han llevado a cabo trabajos de grabación, digitalización, identificación y control de la calidad de la información, así como de apoyo a la tramitación de servicios electrónicos, que han supuesto el tratamiento de 502.121 documentos.

En materia de calidad, se ha prestado asistencia en la elaboración y seguimiento de las cartas de servicios y de las encuestas de satisfacción del Departamento. Asimismo, se ha colaborado en diferentes proyectos horizontales del Departamento (ZERGA, notificación electrónica, modalidades de pago, aspectos relacionados con el empleo de medios electrónicos en la gestión tributaria, etc. ) y en otros de alcance corporativo vinculados con la administración electrónica (expediente electrónico).

• POLITICAS HORIZONTALES.

Por último, a lo largo de 2016 se han llevado a cabo diversas iniciativas relacionadas con la

Azalpen txostena / Memoria explicativa

| Departamentua / Departamento | 06 | Sekzioa / Sección | 01 | Programa kodea / Código programa | 020 | Funtzioa / Función | 122 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|

Arduraduna:
Responsable:

izan dute helburu: herritarren partaidetza, hizkuntza ofizialen urteko erabilera plana, jarduera publikoaren gardentasuna (gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzko foru araudian aurreikusten den informazio ekonomikoa eta aurrekontukoa zabalduz), eta genero berdintasuna (aurrekontuak eta zerga araudia genero ikuspegia kontuan hartuta prestatuz eta gaiaren inguruan departamentuan egindako lan guztiak webgunean argitaratuz).

implementación de diversas políticas horizontales de participación ciudadana, plan anual de uso de lenguas oficiales, de transparencia de la actividad pública (mediante la difusión de la información económica y presupuestaria prevista en la normativa foral sobre transparencia y acceso a la información pública) y de igualdad de género (mediante el impulso de la elaboración de los presupuestos y la normativa tributaria desde la perspectiva de género, y la publicación en la web departamental de todos los trabajos del departamento en esta materia).

## Programaren helburu eta ekintzen fitxa / Ficha de los objetivos y acciones del programa

| Departamentua / Departamento | Sekzioa / Sección | Programa kodea / Código programa | Funtzioa / Función |
|---|---|---|---|
| **06** | **01** | **020** | **122** |

**Helburuak / Objetivos**

01 Ekintzak bultzatzea zerga obligazioak borondatez bete daitezen laguntzeko./
Impulsar acciones que favorezcan el cumplimiento voluntario de las obligaciones tributarias.

| **Ekintzak / Acciones** | Indikatzaileak Indicadores | Aurreikusia Previsión | Egina Realización | Burutua Ejecución |
|---|---|---|---|---|
| 01.1 Zerga heziketako modulu bat ezartzea DBHko 4. ikasturtetik aurrera./ Implantar un módulo de educación tributaria a partir de 4ª de la ESO. | Ikastetxeak/ Centros escolares | 10 | 30 | 300% |
| 01.2 Aholkulari eta bitartekari fiskalen utreko foroa dinamizatzea./ Dinamización del Foro anual de asesores e intermediarios fiscales. | Bilerak/ reuniones | 1 | 0 | 0% |
| 01.3 Zerga eskubide eta betebeharren ezagutza sustatzea./ Promover el conocimiento de los derechos y obligaciones tributarias. | Zerbitzu kartak/ Cartas de servicios | 4 | 4 | 100% |
| | Eskuliburuak argitaratzea/ Publicación de guías | 2 | 2 | 100% |
| | Zerga egutegia argitaratzea/ Publicación del calendario fiscal | 1 | 1 | 100% |
| 01.4 Ekarpen fiskalekin lortutako baliabideen banaketaren ezagutza sustatzea./ Facilitar el conocimiento del reparto de los recursos obtenidos con las aportaciones fiscales. | Orri informatiboa/ Hoja informativa | 1 | 1 | 100% |

## Programaren helburu eta ekintzen fitxa / Ficha de los objetivos y acciones del programa

| Departamentua / Departamento | Sekzioa / Sección | Programa kodea / Código programa | Funtzioa / Función |
|---|---|---|---|
| **06** | **01** | **020** | **122** |

**Helburuak / Objetivos**

02 Departamentuaren antolaketa eta zerbitzuak gipuzkoarren eskarira egokitzea./
Adecuar la organización y los servicios del Departamento a las demandas de los guipuzcoanos y guipuzcoanas.

| **Ekintzak / Acciones** | Indikatzaileak / Indicadores | Aurreikusia / Previsión | Egina / Realización | Burutua / Ejecución |
|---|---|---|---|---|
| 02.1 Informazio pertsonalizatuko zerbitzuak sustatzea./ Potenciación de los servicios de información personalizada. | Bulegoan hartutako kontsulta pertsonalizatuak/ Consultas personales atendidas en oficinas | 235.000 | 228.053 | 97,04% |
| | Pertsonalizatuko arreta telefonikoaren deiak/ Llamadas de telefono personalizadas | 25.000 | 7.000 | 28% |
| | Web-call deiak (on lineko laguntza)/ Llamadas web-call (asistencia on line) | 30.000 | 32.067 | 106,89% |
| | Web: kasu egindako kontsultak eta gestioak/ Consultas y gestiones atendidas: Web | 1.200.000 | 2.849.022 | 237,42% |
| | Eskaerak egin, izena emateko formulario berriak,.../ Nuevos formularios de peticiones, inscripciones, ... | 5 | 2 | 40% |

## Programaren helburu eta ekintzen fitxa / Ficha de los objetivos y acciones del programa

| Departamentua / Departamento | Sekzioa / Sección | Programa kodea / Código programa | Funtzioa / Función |
|---|---|---|---|
| **06** | **01** | **020** | **122** |

**Helburuak / Objetivos**

02 Departamentuaren antolaketa eta zerbitzuak gipuzkoarren eskarira egokitzea./
Adecuar la organización y los servicios del Departamento a las demandas de los guipuzcoanos y guipuzcoanas.

| **Ekintzak / Acciones** | Indikatzaileak / Indicadores | Aurreikusia / Previsión | Egina / Realización | Burutua / Ejecución |
|---|---|---|---|---|
| 02.2 Herritarrentzako informazioa eta arreta hobetzea egoitza nagusiko bulegoetan nahiz zerga bulegoetan./ Mejorar la información y atención presencial a la ciudadanía a través de las oficinas centrales y tributarias. | Itxarote denboraren batazbestekoa murriztea (mn.)/ Reducción del tiempo medio de espera (mn.) | 5 | 1 | 20% |
| | Herritarren gogobetetze maila/ Indice de satisfacción ciudadana | 8/10 | 8,61/10 | 107% |
| | Euskaraz hasi eta jarraitutako aurrez aurreko elkarrizketen kop. (15 egunez)/ Nº de convers. presenciales iniciadas y mantenidas en euskera (durante 15 días) | 3.000 | 2.330 | 77,67% |
| 02.3 Plataforma telefonikoa "contact center" zerbitzuetara aldatzen joatea: interesatuei informazio interesgarria telefonoz komunikatzea eta zerbitzuak ematea./ Evolución de la plataforma telefónica hacia los servicios "contact center": comunicaciones y servicios a las personas interesadas, a través del teléfono. | "Contact center" kanpainak/ Campañas "Contact center" | 1 | 3 | 300% |

## Programaren helburu eta ekintzen fitxa / Ficha de los objetivos y acciones del programa

| Departamentua / Departamento | Sekzioa / Sección | Programa kodea / Código programa | Funtzioa / Función |
|---|---|---|---|
| 06 | 01 | 020 | 122 |

**Helburuak / Objetivos**

02 Departamentuaren antolaketa eta zerbitzuak gipuzkoarren eskarira egokitzea./
Adecuar la organización y los servicios del Departamento a las demandas de los guipuzcoanos y guipuzcoanas.

| **Ekintzak / Acciones** | Indikatzaileak / Indicadores | Aurreikusia / Previsión | Egina / Realización | Burutua / Ejecución |
|---|---|---|---|---|
| 02.4 Laguntza zerbitzuak sustatzea, zerga betebeharrak konplitzeko eta eskubideak erabiltzeko./ Potenciar los servicios de ayuda para cumplimentar las obligaciones tributarias y ejercitar los derechos. | Zerga aitorpen telematiko berriak/ Nuevas declaraciones tributarias telemáticas | 10 | 5 | 50% |
| | Eskaerak, izena emateko formulario berriak/ Nuevos formularios de peticiones, inscripciones | 2 | 2 | 100% |
| 02.5 Jakinarazpen elektronikoko zerbitzuak ezartzea gehien erabiltzen diren prozeduretan./ Implementar servicios de notificación electrónica en los procedimientos de mayor uso. | Prozedurak/ Procedimientos | 3 | 11 | 366,67% |
| 02.6 Espediente elektronikoa. Arlo orokorren egokitzapena./ Expediente electrónico. Adaptación de las áreas generales | Proyectos/ Proiektuak | 2 | 2 | 100% |
| 02.7 Zergadunekiko herremanetan bide berriak bultzatzea teknologia berriez baliatuz./ Potenciar nuevas líneas de relación con contribuyentes, apoyadas en nuevas tecnologías. | Interneteko sare sozialetan egotea/ Presencia en redes sociales de Internet | 1 | 1 | 100% |
| 02.8 Kalitatea etengabe hobetzeko teknikak ezartzea./ Implantación de técnicas sobre mejora continua de calidad. | Herritarren gogobetetzearen inkestak/ Encuestas de satisfacción ciudadana | 2 | 3 | 150% |

## Programaren helburu eta ekintzen fitxa / Ficha de los objetivos y acciones del programa

| Departamentua / Departamento | Sekzioa / Sección | Programa kodea / Código programa | Funtzioa / Función |
|---|---|---|---|
| **06** | **01** | **020** | **122** |

**Helburuak / Objetivos**

03 IKT erabiltzea, Departamentuaren helburuak betetzeko./
Utilización de las TICs para el cumplimiento de los objetivos del Departamento.

04 Tratu beharreko datuen kalitatea eta zehastasuna bultzatzea./
Promover la calidad y exactitud de los datos objeto de tratamiento.

| **Ekintzak / Acciones** | Indikatzaileak / Indicadores | Aurreikusia / Previsión | Egina / Realización | Burutua / Ejecución |
|---|---|---|---|---|
| 03.1 Urteko Plan Informatikoa garatzea./ Desarrollo del Plan Informático anual. | Gauzatze maila/ Grado de ejecución | 100% | 100% | 100% |
| 03.2 ZERGAK: Zerga alorreko kudeatzeko sistema berriaren Lehenengo fasea./ 1ª fase del nuevo sistema de gestión tributaria ZERGAK. | Gauzatze maila/ Grado de ejecución | 40% | 35% | 87,5% |
| 04.1 Datuak biltzea eta departamentuko datu baseetan integratzea zergen zerbitzuek tratatu ditzaten./ Captura de datos e integración en las bases de datos del departamento para su posterior tratamiento por parte de los servicios fiscales. | Agiri digitalizatu kop./ Nº documentos digitalizados | 1.300.000 | 1.396.539 | 107,43% |
| | Aitorpen kop./ Nº declaraciones | 1.400.000 | 1.500.948 | 107,21% |

Azalpen txostena / Memoria explicativa

| Departamentua<br>Departamento | 06 | Sekzioa<br>Sección | 10 | Programa kodea<br>Código programa | 100 | Funtzioa<br>Función | 621 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|

Arduraduna:
Responsable:

2016ko ZERGA-BILKETA

Datu hauek aipatu daitezke 2016ko zerga-bilketaren balantzean:

• Zerga itunduen bilketa likidoa, doiketak barne, 4.198 milioi eurokoa izan da, aurreko urtean baino % 2,3 gehiago (+94 milioi euro). Zerga-bilketa gordina zertxobait gehiago igo da (+% 3,2), baina, itzulketak ere handitu direnez –eta, gainera, gehiago (+% 6,3)–, zerga-bilketa likidoak aipatu dugun hazkundea izan du.

Zerga-bilketa likidoaren igoera hori, gehienbat dago lotuta errenta zergarekin (bilketa 50 milioi handiagoa izan da 2015. urtearen aldean) eta kudeaketa propioko zerga bereziekin (23 milioi euro gehiago).

• Kudeaketa propioko zergetan ia-ia 1.112 milioi eurotik gora itzuli dira, aurreko urtean baino % 1,9 gehiago. Hazkunde hori eman da, gehienbat, sozietateen gaineko zergan (+22 milioi euro; +% 20,4) eta BEZean (+24 milioi euro; +% 4,1) izan diren igoerengatik.

Kudeaketa propioko zergek izan duten zerga-bilketa aztertuta, bilakaera zertxobait positiboagoa izan da zuzeneko zergetan (+% 3,0) zeharkako zergetan baino (+% 2,3). Banan-banan aztertuta, honako hau nabarmendu daiteke:

• PFEZaren zerga-bilketa osoa % 3,3 handitu da (+50 milioi euro). Igoera hori batik bat dator kuota diferentzial garbitik (+38 milioi euro) eta lan etekinen atxikipenetatik (+40 milioi euro); izan ere, beste osagai guztiak jaitsi egin dira.

• Sozietateen gaineko zergan, bilketak bilakaera negatibo txiki bat izan du aurreko urtearen aldean: -% 0,8 (-2 milioi euro).

• Kudeaketa propioko BEZaren zerga-bilketak

LA RECAUDACIÓN TRIBUTARIA EN 2016

El balance de la recaudación de 2016 se caracteriza por los datos siguientes:

• La recaudación líquida por tributos concertados asciende, incluyendo ajustes, a 4.198 millones de euros, un 2,3% más que el año anterior (+94 millones de euros). La recaudación íntegra ha crecido algo más (+3,2%), pero las devoluciones también han aumentado y, además, en mayor medida (+6,3%), de manera que el incremento de la recaudación líquida ha sido el señalado.

El aumento de la recaudación líquida se centra sobre todo en el IRPF (que ha experimentado un incremento en la recaudación de 50 millones de euros respecto a 2015), y en los Impuestos Especiales de gestión propia (aumentan en 23 millones de euros).

• Las devoluciones de impuestos de gestión propia realizadas alcanzan casi los 1.112 millones de euros, con una subida del 1,9% sobre el año anterior; debido, sobre todo, al incremento de las devoluciones del Impuesto sobre Sociedades (+22 millones de euros; +20,4%) y del IVA (+24 millones de euros; +4,1%).

En cuanto al comportamiento de la recaudación por impuestos de gestión propia, se observa una evolución algo más positiva en los impuestos directos (+3,0%) que en los impuestos indirectos (+2,3%). Al efectuar un análisis en los diferentes impuestos, destaca:

• La recaudación total por el IRPF aumenta un 3,3% (+50 millones de euros). Dicho incremento proviene sobre todo de la cuota diferencial neta (+38 millones de euros) y de las retenciones de trabajo (+40 millones de euros); los demás componentes disminuyen.

• La recaudación del Impuesto sobre Sociedades muestra una pequeña evolución negativa sobre el año anterior del -0,8% (-2 millones de euros).

• La recaudación del IVA por gestión propia

Azalpen txostena / Memoria explicativa

| Departamentua / Departamento | 06 | Sekzioa / Sección | 10 | Programa kodea / Código programa | 100 | Funtzioa / Función | 621 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|

Arduraduna:
Responsable:

igoera txiki bat izan du: +% 0,7 (+ 8 milioi euro).

Gipuzkoako biztanleko bilketa 5.848 euro izan da 2016an, hau da, 123 euro gehiago 2015aren aldean. Kopuru horretatik 2.304 euro BEZari dagozkio, 2.176 euro PFEZari, 641 euro zerga bereziei eta, azkenik, 347 euro sozietateen gaineko zergari dagozkio.

Bestetik, zergapekoei beren zerga obligazioak betetzea errazteari begira, administrazio elektronikoa garatzen jarraitu da. Bereziki aipatzekoa da ZERGA proiektuaren I. fasea burutu dela eta lehen emaitzak 2017an ikusgai izango direla.

| 03.1 Behar den informazioa prestatzea Foru Aldundiaren ahalmen finantzarioaren segimendua errazteko./ Confección de la información necesaria para facilitar el seguimiento de la capacidad financiera de la Diputación Foral. | Agiriak/ Documentación | Seihilekoa/ semestral | Seihilekoa/ semestral | 100% |

| Azalpen txostena / Memoria explicativa | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Departamentua<br>Departamento | 06 | Sekzioa<br>Sección | 30 | Programa kodea<br>Código programa | 300 | Funtzioa<br>Función | 631 |
| Arduraduna:<br>Responsable: | | | | | | | |

ARAUGINTZA ETA LEGE AHOLKULARITZA.

2016ko aurrekontu ekitaldirako aurreikusitako araugintzari dagokionez jarritako helburuak betetze aldera, nabarmentzekoa da 5 foru arau onartu direla. Foru arau horien asmoa lotuta dago, nola edo hala, zerga sistema desberdintasun ekonomikoa murriztu eta gainerako lurralde historikoekin harmonizazio maila handia bermatzen duten operatibak ezartzeko benetako tresna bihurtzeko helburuekin, garapen ekonomikorako behar den ziurtasun juridikoa indartuz. Bereziki aipatzekoa da 2016ko abenduaren 15eko 6/2016 Foru Araua onartu dela, langileek enpresan parte hartzea sustatze aldera, produkzio sarea lurralde historikoari lotu eta langileek jarduera ekonomikoaren emaitzetan parte hartzeko tresna moduan.

Bestetik, zerga iruzurraren aurkako tresnak indartze aldera, ohartarazi behar da 2016ko martxoaren 14ko 1/2016 Foru Araua onartu zela, zeinaren bitartez Zergen Foru Arau Orokorra aldatzen baita Foru Ogasunarekin zerga zorrak edo zehapenak dituztenen zerrendak aldizka argitaratzea ezartzeko, zordun horiek zirkunstantzia jakin batzuetan daudenean. Aldi berean, Zergen Foru Arau Orokorraren aldaketa sakon bat landu da, zerga iruzurraren aurkako lanean laguntzeko aldaketa handiak eginda.

Erregelamenduzko garapenen esparruan, aipatzekoa da 6 foru dekretu onartu direla. Horietatik, bereziki nabarmentzekoak dira: ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren funtsezko arauaren erregelamenduzko garapena; 2016rako lehentasunezko jardueren zehaztapena, mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriak aplikatzeko; eta zerga figura nagusien erregelamenduetan egin beharreko doikuntzak, haiei buruzko funtsezko erregulazioetan sartutako aldaketen ondorioz.

DESARROLLO NORMATIVO Y ASESORAMIENTO JURÍDICO.

En cumplimiento de los objetivos de desarrollo normativo previstos para el ejercicio presupuestario de 2016, cabe apuntar la aprobación de 5 normas forales que se encuadran de una manera u otra, en los objetivos de convertir el sistema impositivo en una verdadera herramienta para reducir la desigualdad económica e implementar operativas que garanticen un alto nivel de armonización con el resto de los Territorios Históricos, reforzando así la seguridad jurídica necesaria para el desarrollo económico. Resaltar la aprobación de la Norma Foral 6/2016, de 15 de diciembre, para incentivar la participación de las personas trabajadoras en la empresa, como herramienta para arraigar el tejido productivo al Territorio Histórico y hacer partícipes a los trabajadores de los resultados de la actividad económica.

Por otra parte, en el objetivo de potenciar las herramientas que favorezcan la lucha contra el fraude fiscal, resaltar la aprobación de la Norma Foral 1/2016, de 14 de marzo, por la que se modifica la Norma Foral General Tributaria para incluir la publicación periódica de listados comprensivos de deudores a la Hacienda Foral por deudas o sanciones tributarias en los que concurran determinadas circunstancias, a la vez que se ha trabajado en una modificación de mayor calado de la Norma Foral General Tributaria que introduce importantes modificaciones que coadyuven a la lucha contra el fraude fiscal.

En el ámbito de los desarrollos reglamentarios, apuntar la aprobación de 6 decretos forales, de los cuales cabe resaltar la aprobación del desarrollo reglamentario de la normativa sustantiva del impuesto sobre la renta de no residentes, la determinación de las actividades prioritarias para 2016 a efectos de la aplicación de incentivos fiscales al mecenazgo, así como los debidos ajustes reglamentarios en las principales figuras impositivas, motivadas por las modificaciones introducidas en las regulaciones sustantivas de las

Azalpen txostena / Memoria explicativa

| Departamentua Departamento | 06 | Sekzioa Sección | 30 | Programa kodea Código programa | 300 | Funtzioa Función | 631 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|

Arduraduna:
Responsable:

Lege, zerga eta finantza aholkularitzaren eremuan, zeregin nagusia izan da departamentuko beste zerbitzu batzuek eskatutako borondatezko edo derrigorrezko txosten eskaerei eta haiek egindako kontsultei erantzutea. Horrela, 95 txosten juridiko-tributario prestatu dira, beste 10 txosten egin dira premiamenduzko espedienteekin eta hirugarrengotza administratiboekin lotuta, eta orotara 1.600 kontsultari eman zaie erantzuna.

Eremu horretan, beste jarduketa batzuk ere egin dira, hala nola:

- Arbitraje Batzordearekin lotutako jarduketak: 3 gatazka aurkeztu dira, eta 20 jarduketak gauzatu dira 13 espedienterekin lotuta.

- Departamentuari eragiten dioten prozedura judizialekin lotutako jarduketak: epaiak exekutatzeko ebazpenei buruzko 129 txosten eta proposamen egin dira, eta aurrera jarraitu da organo judizialek Araubide Juridikoari eskatutako dokumentazioaren bidalketa zentralizatzen (39 eskaerari erantzun zaie).

- 2012an abian jarritako “Baliabideen sistema orokorra” izeneko aplikazio informatikoa garatzen jarraitu da.
- 8 txosten egin dira abalak askiesteko, eta 252 legitimazio agiri prestatu dira hildako pertsonen edo desegindako entitateen diru kopuruak kobratzeko.
- Espediente bereziei buruzko 48 eskaerari erantzun zaie.
- Entitate abal-emaileen eta aseguru etxeen erregistroarekin lotutako jarduketak: 63 agiri izapidetu dira, eta finantza entitateen 63 ahalorde dokumentu askietsi.

ERAKUNDEEKIKO KONPROMISOAK.

2016an, zuzendaritzari beharrezko laguntza ematen jarraitzeko, azterlanak, zerga-bilketa aurreikuspenak eta zerga araudian sortutako

mismas.

En el ámbito del asesoramiento jurídico, tributario y financiero, la principal labor se ha centrado en dar respuesta a las solicitudes de informes, voluntarios o preceptivos requeridos y a las consultas formuladas por otros Servicios del Departamento. Así se han elaborado 95 informes jurídico-tributarios, 10 informes relacionados con expedientes de apremio y tercerías administrativas y se han contestado un total de 1.600 consultas.

En dicho ámbito, se han desarrollado igualmente otras actuaciones, tales como las siguientes:

- Actuaciones relacionadas con la Junta Arbitral: se han planteado 3 nuevos conflictos, habiéndose realizado 20 actuaciones en relación con 13 expedientes.
- Actuaciones relacionadas con procedimientos judiciales relativos al Departamento: se han realizado 129 informes y propuestas de resoluciones de ejecución de sentencias y se ha continuado con la centralización de la remisión de documentación solicitada por los órganos judiciales a Régimen Jurídico, habiéndose dado respuesta a 39 solicitudes.
- Se ha continuado la implementación de la aplicación informática “Sistema Integrado de Recursos”, puesta en marcha en 2012.
- Se han emitido 8 informes de bastanteo de avales y 252 escritos de legitimación para cobrar cantidades de personas fallecidas o entidades disueltas.
- Se ha atendido a 48 solicitudes relativas a expedientes especiales.
- Actuaciones relacionadas con el Registro de entidades avalistas y aseguradoras: se han tramitado 63 documentos y bastanteado 63 documentos de poder de entidades financieras.

COMPROMISOS INSTITUCIONALES.

En 2016 se ha seguido prestando el apoyo necesario a la dirección mediante la elaboración de estudios, previsiones recaudatorias, memorias

Azalpen txostena / Memoria explicativa

| Departamentua / Departamento | 06 | Sekzioa / Sección | 30 | Programa kodea / Código programa | 300 | Funtzioa / Función | 631 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|

Arduraduna:
Responsable:

aldaketek zerga-bilketan eta genero ikuspegian duten eraginari buruzko memoriak egin dira. Jarraitu da, baita ere, hilean behin txosten bat egiten Gipuzkoako enpresen salmentei, kanpoko merkataritzari, enpleguari eta soldatei buruz. Eta azkenik, aurrekontuen barruan genero ikuspegia txertatzeko zereginean parte hartzen jarraitu da.

Udalei aholkua eta laguntza teknikoa emateari dagokionez, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera Toki Entitateen Kontabilitate Plan Orokor berria onartu eta indarrean sartzeak ahalegin gehigarria eskatu du, udalei tresna informatikoak eta formularioak eman behar izan zaizkielako kontu orokorraren dokumentu berriak osatzea errazteko

Bestalde, 2016an, tokiko entitateek lehenengo aldiz eman behar izan dute zerbitzuen kostu efektiboari buruzko informazioa. Horrek ekarri du kostu hori kalkulatzeko metodologia arautu beharra, eta informazioa komunikatzeko tresnak haien esku jarri beharra.

2016 urte garrantzitsua izan da Euroko Funtsen aldetik: alde batetik 2007-2013 itxiera dela eta, epealdiko azkeneko gastuen ziurtapenak egin dira; eta bestalde, epealdi berrian (2014-2020) parte hartzeko lan egin da. 2014-2020 epealdi honetan, Gipuzkoako Foru Aldundia bitarteko erakunde izendatu ahal izateko, besteen artean, Prozeduren Deskripzioari buruzko agiri bat prestatu behar izan du, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioko Europako Funtsetako Zuzendaritza Orokorrak onar zezan (baita ere eskuliburu bat). Bi dokumentu horietan programa operatiboa kudeatzeko eta kontrolatzeko prestatutako prozesuak eta prozedurak jasotzen dira. Prozedura horietan jasotzen dena betetzeko hainbat lan egin da: finantzaketa eskaerak, iruzurraren aurkako neurriak, DECAk, organo kudeatzaileen eskuliburuen zirriborroak,...

de impacto recaudatorio y de impacto de género de las modificaciones tributarias. También se ha continuado con la elaboración del informe mensual sobre ventas, comercio exterior, empleo y salarios de las empresas guipuzcoanas. Y por último, se sigue participando para aportar la perspectiva de género dentro de los presupuestos.

En lo referente a la asistencia técnica y asesoramiento a los municipios, la aprobación y entrada en vigor a partir de 1 de enero de 2016 del nuevo Plan General de Contabilidad de Entidades Locales ha requerido un esfuerzo adicional para proporcionar a los ayuntamientos las herramientas informáticas y formularios que facilitasen la obtención de los nuevos documentos que conforman la cuenta general

Por otra parte, durante 2016, las entidades locales han tenido que proporcionar por primera vez la información sobre el coste efectivo de los servicios. Ello ha exigido tanto la necesidad de regular la metodología de cálculo de dicho coste, como de proporcionar las herramientas para su comunicación.

El año 2016 ha sido un año importante en relación con los Fondos Europeos: por un lado, como consecuencia del cierre del periodo 2007-2013, se han realizado las últimas certificaciones de pago; por otro lado, se ha trabajado para participar en el nuevo periodo 2014-2020. Para poder ser nombrada organismo intermedio, la Diputación Foral de Gipuzkoa ha tenido que, entre otras cosas, preparar un documento de Descripción de Funciones y Procedimientos (así como un manual) para que la Dirección General de Fondos Comunitarios del Ministerio de Hacienda y Función Pública lo admitiera. En esos dos documentos se recogen todos los procesos y procedimientos para la gestión y el control del programa operativo. Para poder cumplir los recogidos en dichos procedimientos se han realizado diversos trabajos: solicitudes de financiación, medias anti-fraude, DECAs, borradores de manuales de órganos gestores,...

Azalpen txostena / Memoria explicativa

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Departamentua<br>Departamento | **06** | Sekzioa<br>Sección | **30** | Programa kodea<br>Código programa | **300** | Funtzioa<br>Función | **631** |

Arduraduna:
Responsable:

Lan horiek guztiak onartuta, abenduaren 22an, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak bitarteko erakunde izendatu du Gipuzkoako Foru Aldundia.

Una vez admitidos estos trabajos, el Ministerio de Hacienda y Función Pública, el 22 de diciembre, designó a la Diputación Foral de Gipuzkoa organismo intermedio.

## Programaren helburu eta ekintzen fitxa / Ficha de los objetivos y acciones del programa

| Departamentua / Departamento | 06 | Sekzioa / Sección | 30 | Programa kodea / Código programa | 300 | Funtzioa / Función | 631 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|

**Helburuak / Objetivos**

01 Foru gobernuari laguntzea zerga eta finantza politikako ildo nagusiak definitzeko orduan, Diputatuen Kontseiluak finkatutako jarraibideetan oinarrituz, eta oinarrizko artzerketak egin zerga eta finantza alorreko erabakiak hartzeko./
Apoyar al Gobierno Foral en la definición de las líneas generales de política fiscal y financiera, en base a las directrices marcadas por el Consejo de Gobierno Foral y realizar los estudios base para la toma de decisiones en materia fiscal y financiera.

02 Departamentuak kudeatzen dituen gaien araudia garatzea, zerga sistema ekitatiboagoa eta banakorragoa izan dadin, betiere genero ikuspegia kontuan hartuta./
Realizar el desarrollo normativo de las materias gestionadas por el Departamento, con el objetivo de promover un sistema tributario más equitativo y redistributivo, siempre teniendo en cuenta la perspectiva de género.

| Ekintzak / Acciones | Indikatzaileak / Indicadores | Aurreikusia / Previsión | Egina / Realización | Burutua / Ejecución |
|---|---|---|---|---|
| 01.1 Beste administrazio batzuekin koordinatzea zerga eta finantza alorrak./ Coordinar con otras Administraciones las materias fiscal y financiera. | Lan bilerak/ Reuniones de trabajo | 10 | 10 | 100% |
| 01.2 Lan programak prestatzea, funtzionamenduko ildo orokorrak ezarriz eta irizpideak eta lehentasunak finkatuz./ Elaboración de programas de trabajo, estableciendo líneas generales de funcionamiento y fijando criterios y prioridades. | Lan plana/ Plan de trabajo | 1 | 1 | 100% |
| 02.1 Foru arau, Foru Dekretu eta Foru Aginduen proiektuak eta Diputatuen Kontseiluen erabakiak prestatzea./ Elaborar los Proyectos de Normas Forales, de Decretos Forales, de Ordenes Forales y de Acuerdos del Consejo de Gobierno Foral de carácter general. | Proiektuak/ Proyectos | 30 | 23 | 76,67% |
| 02.2 Araudia aldatzeko proiektuen txostenak prestatzea: txosten juridikoa, ekonomikoa eta genero eraginarena./ Elaborar las memorias de los proyectos de modificación normativa: memoria jurídica, económica y de impacto de género. | Txostenak/ Memorias | 18 | 33 | 183,33% |
| 02.3 Departamentuko web orrian Gipuzkoako zerga araudi eguneratua hedatzea./ Difusión a través de la Web del Departamento de la normativa tributaria guipuzcoana actualizada. | Eguneraketak/ Actualizaciones | 20 | 23 | 115% |

## Programaren helburu eta ekintzen fitxa / Ficha de los objetivos y acciones del programa

| Departamentua / Departamento | 06 | Sekzioa / Sección | 30 | Programa kodea / Código programa | 300 | Funtzioa / Función | 631 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|

**Helburuak / Objetivos**

03 Departamentuari ahokularitza juridikoa ematea, zerga eta finantza arloan, xedapen eta egintzen segurtasuna hobetzeko./
Asesoramiento jurídico, en materia tributaria y financiera, al Departamento, a fin de mejorar la seguridad de sus disposiciones y actos.

| Ekintzak / Acciones | Indikatzaileak / Indicadores | Aurreikusia / Previsión | Egina / Realización | Burutua / Ejecución |
|---|---|---|---|---|
| 03.1 Zerga eta finantza alorrean txosten juridiko-tributarioak egin, hain zuzen indarrean dagoen arudiak eskatuak edo Departamentuko beste organoak eskatuak./ Elaboración de informes y estudios y resolución de consultas, en materia financiera y fiscal, previstos en la normativa vigente o solicitados por los órganos del Departamento. | Txosten juridikoak/ Informes y estudios | 130 | 132 | 101,54% |
| | Kontsultak/ Consultas | 650 | 700 | 107,69% |
| 03.2 Lege eta zerga auziak interpretatzen edo ebazten dituzten organo eta batzordeen bileretan parte hartu./ Participación en sesiones de órganos y comisiones en los que se interpreten o resuelvan cuestiones jurídico-tributarias. | Bilerak/ Sesiones | 15 | 13 | 86,67% |
| 03.3 Entitate abal emaileen eta aseguru etxeen Departamentuko erregistroko datuak eraman eta eguneratu./ Llevanza y actualización de datos del Registro de Avalistas y Entidades aseguradoras del Departamento. | Jarduketak/ Actuaciones | 100 | 84 | 84% |
| 03.4 Abal, ahalorde eta Departamentuarekin jarduteko gainerako legitimazio agiriak askietsi./ Bastanteo de avales, poderes y documentos de legitimación para actuar ante el Departamento. | Askiesteak/ Bastanteos | 325 | 315 | 96,92% |

# Programaren helburu eta ekintzen fitxa / Ficha de los objetivos y acciones del programa

| Departamentua / Departamento | 06 | Sekzioa / Sección | 30 | Programa kodea / Código programa | 300 | Funtzioa / Función | 631 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|

**Helburuak / Objetivos**

04 Foru Ogasunari eragiten dioten eskubideak defendatzeko aurrera ematen diren prozedura administratibo eta judizialen jarduketa eta exekuzioak bideratzea, koordinatzea eta jarraitzea./
Realización, coordinación y seguimiento de actuaciones y ejecuciones en procedimientos administrativos o judiciales seguidos en defensa de los intereses de la Hacienda Foral.

| **Ekintzak / Acciones** | Indikatzaileak Indicadores | Aurreikusia Previsión | Egina Realización | Burutua Ejecución |
|---|---|---|---|---|
| 04.1 Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen aurrean bideratzen diren prozeduretan ekintzak burutu./ Realización de actuaciones en relación con procedimientos que se sigan ante la Junta Arbitral del Concierto Económico. | Jarduketak/ Actuaciones | 20 | 20 | 100% |
| 04.2 Koordinatu eta jarraipena egin Departamentuari eragiten dioten eskubideak defendatzeko aurrera ematen diren prozedura administratibo eta judizialei eta horietan emandako ebazpenak betetzeari lotutako jarduketei, segimenduko aplikazio informatikoan hobekuntzak barneratzen./ Coordinación y seguimiento de actuaciones del Departamento en procedimientos judiciales y administrativos seguidos en defensa de sus intereses y de ejecución de las resoluciones dictadas en los mismos, introduciendo mejoras en la aplicación informática de seguimiento. | Jarduketak/ Actuaciones | 40 | 39 | 97,5% |
| | Txostenak/ Informes | 130 | 129 | 99,23% |

## Programaren helburu eta ekintzen fitxa / Ficha de los objetivos y acciones del programa

| Departamentua / Departamento | Sekzioa / Sección | Programa kodea / Código programa | Funtzioa / Función |
|---|---|---|---|
| **06** | **30** | **300** | **631** |

**Helburuak / Objetivos**

05 Zerga eta finantza arloan gardentasun printzipioa errazteko beharrezkoak diren tresnak garatzea./
Desarrollar las herramientas necesarias para facilitar el principio de transparencia en el ámbito tributario y financiero.

| Ekintzak / Acciones | Indikatzaileak / Indicadores | Aurreikusia / Previsión | Egina / Realización | Burutua / Ejecución |
|---|---|---|---|---|
| 05.1 Foru Ogasunaren Urteko Txostena egitea. Euskal Ogasunaren txosten Bateratuaren elaborazioan parte hartu./ Participación en la elaboración del informe Integrado de la Hacienda Vasca. | Txostenak/ Informes | 1 | 1 | 100% |
| 05.2 Txostenak egin eta zabaldu: *Zerga itunduen bilketa *Ordaintzeko dagoen zorra *Enpresan handien zerga bilketa *Foru Ogasunaren adierazleak *Gipuzkoako enpresen salmentak eta emplegua, zerga datuen arabera. / Elaboración y difusión de informes: *Recaudación por tributos concertados *Deuda tributaria pendiente *Recaudación de grandes empresas *Indicadores de la Hacienda Foral *Ventas y empleo de las empresas de Gipuzkoa según datos tributarios. | Txostenak / Informes | 60 | 57 | 95% |
| 05.3 Aurrekontu Orokorrei buruzko memoriak prestatu: *Zerga Itunduen sarrerak *Erakundeekiko konpromisoak *Ekonomiko#finantzarioa *Gastu fiskalak *Genero eragina./ Elaboración de memorias que acompañan a los Presupuestos Generales: *Ingresos por tributos concertados *Compromisos Institucionales *Económico-financiero *Gastos fiscales. | Memoriak/ Memorias | 5 | 5 | 100% |
| 05.4 Toki administrazioei zuzendutako informazioa egin eta zabaltzea./ Elaboración y difusión de información dirigida a las entidades locales. | Aldizkari kopurua/ Nºrevistas | 2 | 2 | 100% |
| | Albiste kopurua/ Nº noticias | 160 | 144 | 90% |

## Programaren helburu eta ekintzen fitxa / Ficha de los objetivos y acciones del programa

| Departamentua / Departamento | 06 | Sekzioa / Sección | 30 | Programa kodea / Código programa | 300 | Funtzioa / Función | 631 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|

**Helburuak / Objetivos**

06 Udalei finantza, aurrekontu eta zerga alorreko laguntza teknikoa eskaintzea eta aholkua ematea./
Asistencia técnica y asesoramiento a los municipios en materia financiera, presupuestaria y tributaria.

| **Ekintzak / Acciones** | Indikatzaileak / Indicadores | Aurreikusia / Previsión | Egina / Realización | Burutua / Ejecución |
|---|---|---|---|---|
| 06.1 Udalekin finantza politika koordinatzea, arloari buruzko informazio nagusia komunikatzea eta udalen partaidetza sustatzea./ Coordinar con los ayuntamientos la política financiera, comunicar la información más relevante en la materia y fomentar la participación en los Ayuntamientos. | Bilerak alkateekin/ Reuniones con alcaldes | 2 | 2 | 100% |
| | Bilerak teknikariekin/ Reuniones con personal técnico | 6 | 6 | 100% |
| 06.2 Udalekin elkarlanean aritzea, aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzko araudia behar bezala aplikatzeko./ Colaborar con los ayuntamientos en la correcta aplicación sobre la normativa referente a la Estabilidad Presupuestaria y a la Sostenibilidad Financiera. | Jarraibideak/ Directrices | 1 | 1 | 100% |
| | Aplikazio informatikoa/ Aplicación informática | 1 | 0 | 0% |
| 06.3 Tutoretza finantzarioa aritu eta tutoretza finantzarioko araudi berria prestatu./ Ejercicio de la tutela financiera y elaboración de una nueva regulación de la tutela financiera. | Araudia/ Regulación | 1 | 1 | 100% |
| | Tutoretza: txos.-prop.ak/ Tutela: informe-ppta. | 15 | 15 | 100% |
| | Udal ondasunak:txost.-prop.ak./ Bienes municipales: informe-ppta. | 15 | 2 | 13,33% |

## Programaren helburu eta ekintzen fitxa / Ficha de los objetivos y acciones del programa

| Departamentua / Departamento | 06 | Sekzioa / Sección | 30 | Programa kodea / Código programa | 300 | Funtzioa / Función | 631 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|

**Helburuak / Objetivos**

06 Udalei finantza, aurrekontu eta zerga alorreko laguntza teknikoa eskaintzea eta aholkua ematea./
Asistencia técnica y asesoramiento a los municipios en materia financiera, presupuestaria y tributaria.

07 Europako kofinantzazio estruktuala kudeatzea./
Gestión de la cofinanciación estructural comunitaria.

| Ekintzak / Acciones | | Indikatzaileak Indicadores | Aurreikusia Previsión | Egina Realización | Burutua Ejecución |
|---|---|---|---|---|---|
| 06.4 | Udalei laguntza juridikoa eta ekonomioa: -Udal txikiekin bilerak aurrekontu likidazioaren prestaketan aguntzeko. -Kontsultez arduratu eta erantzun. -Informazio oharrak./ Asistencia jurídica y económica a los Ayuntamientos: -Reuniones con los ayuntameintos pequeños para asistirles en la liquidación presupuestaria. -Resolver y atender consultas. -Nota informativas. | Bilerak kopurua/ Nº reuniones | 4 | 4 | 100% |
| | | Kontsulta kopurua/ Nº consultas | 1.000 | 1.000 | 100% |
| | | Informazioa ohar kop./ Nº notas informativas | 12 | 12 | 100% |
| 07.1 | Teknikoki koordinatu eskualdeen lehiakortasunari eta enpleguari buruzko 2007-2014ko helburuko jarduketak (FEDER) eta (FSE)./ Coordinación técnica de las actuaciones con financiación de los fondos FEDER y FSE del período 2007-2014. | Ikuskatutako proiektu kop./ Nº proyectos supervisados | 15 | 17 | 113,33% |
| 07.2 | 2014-2020 epealdi berria abian jarri eta kudeatu: FEDER eta FSE./ Puesta en marcha y gestión del nuevo periodo 2014-2020: FEDER y FSE. | Onartutakoproiektu kop./ Nº proyectos aprobados | 13 | 13 | 100% |
| 07.3 | EBko beste finantzazio deialdien azterketa eta sustapena./ Análisis e impulso de otras convocatorias de financiación de la UE. | Deialdiak/ Convocatorias | 2 | 2 | 100% |
| 07.4 | Batasuneko finantzazioa duten jardueren kudeaketa eraginkorra bultzatzen duten akintzak definitu eta martxan jarri./ Definir e implementar acciones que fomenten la gestión eficiente de las acciones con financiación comunitaria. | Aurrekontuko neurriak/ Medidas presupuestarias | 1 | 0 | 0% |

## Azalpen txostena / Memoria explicativa

| Departamentua<br>Departamento | 06 | Sekzioa<br>Sección | 30 | Programa kodea<br>Código programa | 310 | Funtzioa<br>Función | 911 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Arduraduna:<br>Responsable: | | | | | | | |

Erakundeekiko konpromisoei dagokienez, 2016an ez da arau mailako aldaketarik izan, ez Ekarpenen Legean, ez Kupoaren Legean, ez Udalak Finantzatzeko Foru Funtsari buruzko 15/1994 Foru Arauan.

2016an, Erakundeekiko Konpromisoen programaren kudeaketa bi gertaeraren eraginpean gauzatu da: alde batetik, negoziazioak izan dira Ekarpenen Lege berri bat onartzeko, baliabideen banaketa orekatua lortzeko xedea izan dutenak, lurralde historikoen arteko ezberdintasunak ekidituz; eta bestaldetik, kupoaren kalkuluaren inguruan, Estatuaren eta EAEren arteko desadostasunek jarraitu dute, eta 2016-12-31n 1.600 milioi eurotik gorako kopurura iritsi dira.

Por lo que se refiere a los compromisos institucionales, durante 2016 no se han producido modificaciones normativas ni en la Ley de Aportaciones, ni en la Ley de Cupo, ni en la Norma Foral 15/1994 reguladora del Fondo Foral de Financiación Municipal.

La gestión del programa de Compromisos Institucionales a lo largo de 2016 ha estado marcada por dos circunstancias: por un lado, las negociaciones para la aprobación de una nueva Ley de Aportaciones que conduzca a una distribución equilibrada de los recursos y que evite desigualdades entre los territorios históricos; y por otro lado, las discrepancias entre el Estado y la CAPV en el cálculo del cupo, que han alcanzado a 31-12-2016 un importe superior a 1.600 millones de euros.

## Programaren helburu eta ekintzen fitxa / Ficha de los objetivos y acciones del programa

| Departamentua / Departamento | Sekzioa / Sección | Programa kodea / Código programa | Funtzioa / Función |
|---|---|---|---|
| **06** | **30** | **310** | **911** |

**Helburuak / Objetivos**

01 Erakundeekiko Konpromisoak kudeatzea. Estatuarentzako Kupoa, Eusko Jaurlaritzari egin beharreko Ekarpenak eta Udalak Finantzatzeko Foru Fondoa./
Gestión de los Compromisos Institucionales. Cupo al Estado, Aportaciones al Gobierno Vasco y Fondo Foral de Financiación Municipal.

| Ekintzak / Acciones | Indikatzaileak / Indicadores | Aurreikusia / Previsión | Egina / Realización | Burutua / Ejecución |
|---|---|---|---|---|
| 01.1 Kudeaketa lanak: 1. Kupoaren epeak ordaintzea. 2. Ekarpenen epeak ordaintzea. 3. 2016ko Udal Fondoaren konturako ordainketak eta 2015eko likidazioa kudeatzea. 4. BEZaren eta Zerga Berezien doikuntzen jarraipena egitea./ Tareas de gestión: 1. Gestión de pago de los plazos de Cupo. 2. Gestión de pago de los plazos de Aportaciones. 3. Gestión de entregas a cuenta del FFFM de 2016 y liquidación de 2015. 4. Seguimientos de los Ajustes Recaudatorios IVA y Ajustes Impuestos Especiales. | 1. Ordainketak/ 1. Pagos | 3 | 3 | 100% |
| | 2. Ordainketak/ 2. Pagos | 7 | 7 | 100% |
| | 3. Ordainketak/ 3. Pagos | 4 | 4 | 100% |
| | 4. Doiketak/ 4. Ajustes | 16 | 16 | 100% |
| 01.2 Hainbat txosten egitea./ Elaboración de informes diversos. | Txostenak/ Informes | 12 | 12 | 100% |

Azalpen txostena / Memoria explicativa

| Departamentua / Departamento 06 | Sekzioa / Sección 40 | Programa kodea / Código programa 400 | Funtzioa / Función 621 |
| --- | --- | --- | --- |

Arduraduna:
Responsable:

Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren eginkizuna da zergadunek eta interesdunek foru zergen eta horien bilketari eta beste foru sarrera batzuen bilketari eta Gipuzkoako udalen zerga sarrerei dagokienez aurkeztutako erreklamazioak ebaztea. Hori dela eta, Auzitegiaren jarduna zerbitzu hori ematera bideratu behar da.

2016an, guztira 889 erreklamazio ekonomiko-administratibo aurkeztu dira: 734 Zerga Itunduen Aretoaren gaiekin lotuta daude, eta 155 Udal Zergen Aretoaren gaiekin. Bereziki aipatu behar da aurreko ekitaldiekin alderatuta erreklamazio gutxiago jarri direla, 2010aren aurreko erreklamazioen kopurutik hurbil ibili baitira. 6 urteren ondoren (orduan, 1.000 erreklamazio baino dezente gehiago aurkezten ziren), ikusi beharko da datozen ekitaldietan joera horrek sendotze aldera egiten ote duen. Izan ere, horrek bere biziko garrantzia izango du araudian jarritako urtebeteko epea ebazteko helburuari begira.

Ez da asko aldatu, ordea, Zerga Ikuskaritzaren aktetatik eratorritako erreklamazioen kopurua. Erreklamazio horiekin batera dokumentazio kopuru handia aurkeztu ohi da eta gaien azterketa konplexua da. Jakina denez, horrek eragin negatiboa du erreklamazioei erantzuteko batez besteko denboran. Erantzukizun deribazioaren arloan ere erreklamazio kopurua mantendu da. Talde horretan ere dokumentazioaren kopurua handia da eta lana nekeza da, ebazpen epearen murrizpena zaila izanik. Dena den, sozietateen gaineko zergan erreklamazio kopurua jaitsi da (66), hau da, aurreko urtearen aldean 100eko 35 murriztu dira. Eta hori garrantzitsua da. Bestetik, itxuraz, zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zergan erreklamazio kopurua (64) jaisten hasia da, kudeaketa zerbitzuaren itzulketetan aurrera egitearen ondorioz. Hainbat arrazoi direla-eta itzulketarik gabe gelditu diren kasuak bakarrik daude ebazteko. Udal zergen arloan, gora egin dute jarduera ekonomikoen

El Tribunal Económico-Administrativo Foral tiene como misión resolver las reclamaciones interpuestas por las personas contribuyentes e interesados en relación con los tributos forales y su recaudación, con la recaudación de otros ingresos forales, así como con los ingresos tributarios de los Ayuntamientos guipuzcoanos. Por ello, la actividad del Tribunal ha de estar orientada a la prestación de este servicio.

Durante el ejercicio 2016 se han presentado un total de 889 reclamaciones económico-administrativas, que se corresponden a la suma de 734 reclamaciones referidas a materias de la Sala de Tributos Concertados, y de 155 sobre materias propias de la Sala de Tributos Locales. Comparando con ejercicios anteriores, resulta relevante el descenso en el número de reclamaciones interpuestas, que se asemeja más a las cifras de reclamaciones anteriores al año 2010. Después de 6 años en los que el número de reclamaciones ha superado ampliamente el millar, habrá que ver si en los próximos ejercicios se confirma esta tendencia, porque puede ser capital para el objetivo de resolución en el plazo de un año establecido por la normativa.

Donde no ha habido cambios significativos ha sido en el número de reclamaciones cuyo origen proviene de actas de la Inspección de los Tributos (114), que sigue siendo proporcionalmente elevado, y que lleva aparejado un gran volumen de documentación y una complejidad de los temas a analizar importante, con el efecto perjudicial de sobra conocido en el tiempo medio de respuesta para las reclamaciones. También se mantiene el número de reclamaciones en materia de derivaciones de responsabilidad, otro de los grupos que por volumen y laboriosidad operan en contra de la reducción de los plazos de resolución. No obstante, sí se observa un descenso en el número de reclamaciones referidas al Impuesto sobre Sociedades (66), cifra que supone una reducción de, aproximadamente, un 35% respecto al año anterior, lo cual es relevante. Por otro lado, parece que empieza a descender el número de reclamaciones en relación al Impuesto sobre Ventas Minoristas de Determinados

| Azalpen txostena / Memoria explicativa | | | |
|---|---|---|---|
| Departamentua / Departamento **06** | Sekzioa / Sección **40** | Programa kodea / Código programa **400** | Funtzioa / Función **621** |
| Arduraduna: / Responsable: | | | |

gaineko zergari lotutako erreklamazioek; ondasun higiezinen gaineko zergan, aldiz, kopurua mantendu egin da, balio ponentzia berrien onarpenak 2017rako izango duen efektuaren eta 2016aren amaieran egingo den katastro balioen jakinarazpenaren zain.

Auzitegiaren jardueraren emaitzari dagokionez, nabarmentzekoa da 2016an guztira 1.137 erreklamazio ebatzi direla, hau da, aurreko ekitaldian baino 100eko 17 gehiago. Halere, 2015eko erreklamazioen ebazpena ezin izan zen amaitu abenduaren 31n (599 erreklamazio ebazteko gelditu ziren).

Datu horien arabera, ondorioztatu daiteke erreklamazioak ebazteko benetako epea handiagoa dela araudian jarritakoa baino. Halere, hobekuntza bat izanda aurreko ekitaldiaren aldean, abenduaren 31n ebazteko dauden erreklamazioak 250 gutxiago baitira (100eko 15 jaitsi dira). Horri dagokionez, Auzitegira langile gehiagoren presentzia sendoagoa izaten hasi da eta, horrekin batera, erreklamazio kopurua txikiagoa da. Horiek direla eta, nola edo hala ikuspuntu baikorrago bat sumatu daiteke datuak modu erabakigarri batean hobeagotzen jarraitzeko aukeraz.

Hori horrela, azpimarratzekoa da 2016an bete egin dela aurreko urteko lehen helburua –erreklamazio ebatzien kopurua aurkeztutakoak baino handiagoa izatea–. Helburu horri aurrerantzean ere heldu behar zaio, salbu eta tartean ez badira gertatzen Auzitegiaren jarduerari eragin diezaioketen salbuespenezko egoerak.

Oraingo ekitaldirako jarritako helburu zehatzagoei begira, 2014eko ekitaldiko erreklamazio guztiak ebazteko helburua bete zen,

Hidrocarburos (64), fruto de que se ha avanzado en la realización de las devoluciones por parte del Servicio de Gestión, quedando los casos en los que algún periodo no se ha devuelto por diversas razones. En materia de tributos locales, ha habido un repunte en reclamaciones en el Impuesto sobre Actividades Económicas, manteniéndose las presentadas por el Impuesto sobre Bienes Inmuebles, a la espera del efecto que para el año 2017 tendrá la aprobación de las nuevas ponencias de valores y consiguiente notificación de los valores catastrales a finales del ejercicio 2016.

En lo referente al resultado de la actividad, debe destacarse que se han resuelto durante el ejercicio 2016 un total de 1.137 reclamaciones, un 17% más que en el ejercicio anterior, aunque no se pudo terminar con las reclamaciones del ejercicio 2015 a 31 de diciembre, fecha en la que restaban 599 reclamaciones.

De los datos que se han señalado, puede deducirse que el plazo efectivo de resolución de las reclamaciones supera el previsto por la normativa, aunque sí se observa una mejora respecto al ejercicio precedente, al minorarse el volumen de reclamaciones pendientes de resolver a 31 de diciembre en cerca de 250 (un 15% menos). A este respecto, las incorporaciones de personal en la plantilla empiezan a consolidarse, lo que unido al descenso en el número de reclamaciones presentadas permite un cierto optimismo de cara a seguir mejorando los datos de una forma ya decidida.

Así, debemos destacar que el primer objetivo marcado el año precedente, de conseguir que la cifra de reclamaciones resueltas supere a las presentadas, se ha cumplido de forma clara en este año 2016 y debe mantenerse en adelante, salvo que acontecimientos excepcionales pudieran interferir en la marcha del Tribunal.

En cuanto a los objetivos más concretos marcados para el ejercicio, se ha cumplido el objetivo de resolución de las reclamaciones que

| Azalpen txostena / Memoria explicativa | | | |
|---|---|---|---|
| Departamentua<br>Departamento **06** | Sekzioa<br>Sección **40** | Programa kodea<br>Código programa **400** | Funtzioa<br>Función **621** |
| Arduraduna:<br>Responsable: | | | |

baita beste helburua ere, 2015an jarritako erreklamazioen 100eko 60 ebazteko aurreikuspena lortu egin baita. Udal zergen arloan, gainditu da ere 2016an jarritako erreklamazioen 100eko 80 ebazteko helburua, eta 100eko 84ra iritsiko da. Horrekin batera lortu da epe barruan erreklamazioak ebaztea, eta horrela urte honetako helburua ez ezik agintaldiko helburua ere bete dela, alegia, araudian jarritako epean baino denbora tarte laburragoan ebazteko helburua.

Bestetik, eta funtzionamendu orokorrari dagokionez, jakinarazpen elektronikoen sistema erabat martxan dago, eta aurreikuspenak betetzen ari dira. Ondorioz, lortu da aldizkari ofizialean argitaratzeko igorpenak 100eko 40 inguru jaitsi direla, eta portzentaje hori igo behar du.

Azkenik, erabat betetzekotan dago erreklamazio ekonomiko-administratiboen eta horiekin lotutako beste agiri batzuen aurkezpen telematikoa hobetzeko helburua. Izan ere, aplikazioaren arlo ezberdinen aldaketak hasi ziren, horren erabilgarritasun handiagoak martxan jartzeko, eta aurten burutu dira. Hori dena baliagarria da, betiere, epe luzeagorako helburua lortzeko, hau da, espediente elektronikoa erabat ezartzeko.

quedaban pendientes del año 2014, y también el de reclamaciones resueltas del ejercicio 2015, puesto que se ha alcanzado el 60% de las interpuestas en dicho periodo. En materia de Tributos Locales incluso se ha superado la previsión de resolver el 80% de las reclamaciones interpuestas en 2016, alcanzándose el 84%, por lo que se ha logrado también llegar a la resolución dentro de plazo de las reclamaciones, lo que supone no sólo cumplir el objetivo previsto para el año, sino también el objetivo de la legislatura.

En otro orden de cosas, y en lo referente al funcionamiento general, se ha puesto en marcha y se encuentra operativo el sistema de notificaciones electrónicas, cumpliéndose las previsiones iniciales, con la reducción en los envíos a publicación en el boletín cercanos al 40%, cifra que debe ir en aumento.

Finalmente, el objetivo de mejora en la presentación por vía telemática de reclamaciones económico-administrativas y de otros documentos relacionados con las mismas también se ha cumplido, puesto que se iniciaron las modificaciones en los diversos aspectos de la aplicación para la puesta en marcha de esas mayores utilidades, que en el ejercicio actual se han culminado. Todo ello sirve también para ese objetivo a más largo plazo que es la implantación del expediente electrónico, en el que se sigue avanzando.

## Programaren helburu eta ekintzen fitxa / Ficha de los objetivos y acciones del programa

| Departamentua / Departamento | Sekzioa / Sección | Programa kodea / Código programa | Funtzioa / Función |
|---|---|---|---|
| **06** | **40** | **400** | **621** |

**Helburuak / Objetivos**

01 Aurkeztutako erreklamazio ekonomiko-administratiboak ebazteko ezarrita dauden legezko epeak betetzea./
Cumplir los plazos legales en la resolución de reclamaciones económico-administrativas interpuestas.

| **Ekintzak / Acciones** | Indikatzaileak / Indicadores | Aurreikusia / Previsión | Egina / Realización | Burutua / Ejecución |
|---|---|---|---|---|
| 01.1 2014ko erreklamazioak ebaztea, bai Auzitegiko aretoen ebazpenen bidez eta bai banakako ebazpenen bidez./ Resolver las reclamaciones interpuestas en el año 2014 mediante resoluciones de las Salas del Tribunal o de forma individual. | Portzentajea/ Porcentaje | 100% | 100% | 100% |
| 01.2 Erreklamazioak urte batetik beherako epean ebaztea./ Resolver las reclamaciones en un plazo inferior a un año. | Portzentajea/ Porcentaje | 80% | 62% | 77,50% |

## Programaren helburu eta ekintzen fitxa / Ficha de los objetivos y acciones del programa

| Departamentua / Departamento | Sekzioa / Sección | Programa kodea / Código programa | Funtzioa / Función |
|---|---|---|---|
| **06** | **40** | **400** | **621** |

**Helburuak / Objetivos**

02 Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren kudeaketa bere osoan hobetzea./
Optimizar la gestión integral del Tribunal Económico Administrativo.

| **Ekintzak / Acciones** | Indikatzaileak<br>Indicadores | Aurreikusia<br>Previsión | Egina<br>Realización | Burutua<br>Ejecución |
|---|---|---|---|---|
| 02.1 Auzitegian jakinarazpen elektronikoak ezarri./<br>Implantación en el Tribunal de las notificaciones electrónicas (Objetivo 6). | Porzentejea/<br>porcentaje | 10% | 10% | 100% |
| 02.2 Auzitegian aurkezpen telematikoaren aukera zabaltzea, idatziak eta dokumentuak helarazteko./<br>Ampliación de las posibilidades de presentación telemática de escritos y documentación para el Tribunal. Avance hacia la implantación del expediente electrónico (Objetivo 6). | Porzentajea/<br>Porcentaje | 10% | 10% | 100% |
| 02.3 Langileak trebatzea./<br>Formación del personal. | Prestakuntzako ordu kop.-pertsonako/<br>Núm.horas formación-persona | 8 | 8 | 100% |
| 02.4 Etengabeko hobekuntzan kalitatezko teknikak mantentzea eta hobetzea, CGI, Foro Teknikoa eta Unitate Administratiboa bileretan elkartuz./<br>Mantenimiento y mejora de técnicas de calidad en la mejora contínua mediante reuniones del CGI, Foro Técnico y Unidad Administrativa. | Neurri kop./<br>Nª medidas | 9 | 9 | 100% |
| 02.5 Euskararen erabilera bultzatzea. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko planak ezarritako jarraibideak betetzen jarraitzea./<br>Potenciación del uso del euskara. Proseguir en el cumplimiento de las directrices marcadas en los planes de uso de las lenguas oficiales. | Euskaraz egindako ebazpen kop./<br>Nº resoluciones en euskara | 11 | 11 | 100% |

## Programaren helburu eta ekintzen fitxa / Ficha de los objetivos y acciones del programa

| Departamentua / Departamento | Sekzioa / Sección | Programa kodea / Código programa | Funtzioa / Función |
|---|---|---|---|
| 06 | 40 | 400 | 621 |

**Helburuak / Objetivos**

02 Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren kudeaketa bere osoan hobetzea./
Optimizar la gestión integral del Tribunal Económico Administrativo.

03 Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren, beste administrazioen eta gizartearen arteko komunikazioa hobetzea./
Mejorar la comunicación entre el Tribunal Económico Administrativo, otras administraciones y la sociedad.

| Ekintzak / Acciones | Indikatzaileak Indicadores | Aurreikusia Previsión | Egina Realización | Burutua Ejecución |
|---|---|---|---|---|
| 02.6 Gipuzkoako Foru Aldundiak ingurumenarekiko ezarri dituen jarraibideak betetzen jarraitzea (papera desagertaratzea, Bulego Berdea eta abar): hartutako neurriak./ Proseguir con las directrices marcadas por la Diputación Foral de Gipuzkoa con el medio ambiente, eliminación de papel, Bulego Berdea, etc: Medidas adoptadas. | Neurri kop./ Nº medidas | 2 | 2 | 100% |
| 02.7 Hizkera ez-sexista. Jarraibideak betetzea eta agiriak idazten lagunduko duen tresna jartzea: neurriak./ Lenguaje de género. Seguimiento de directrices e instalación de herramientas que facilite la redacción de documentos:medidas. | Neurri kop./ Nº medidas | 2 | 2 | 100% |
| 03.1 Auzitegiaren ebazpenen webguneko argitarapena mantentzea eta hobetzea./ Mantenimiento y mejora en la publicación de las resoluciones del Tribunal en la página web del TEAF. | Porzentajea/ Porcentaje | 100% | 100% | 100% |
| 03.2 Web gunea berrikustea, eguneatzea eta hobetzea, informazioa, irisgarritasun eta abarri dagokionez./ Revisión, actualización y mejora de la página Web en cuanto a información, accesibilidad, etc... | Berrikuste kop./ Nº revisiones | 2 | 2 | 100% |
| 03.3 Aldizkari juridikoekin elkarlanean aritzea Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren irizpideak zabaltzeko./ Colaborar con revistas jurídicas en la difusión de los criterios del Tribunal Económico-Administrativo. | Bidalketa kop./ Nº envíos | 12 | 12 | 100% |
| 03.4 Lege eta zerga alorreko foroetan parte hartzea./ Participación en foros jurídicos y fiscales. | Foro kop./ Núm. foros | 2 | 2 | 100% |